


# I PUI N-GAI AK

XABI ER GALARRETA



© Marjinalia Bilduma  
Lege-Gordailua: SS-1439/03

Oharra: ondoko ipuinak, garatu nahi dituenaren esku daude. Nahi adina bertsio egin daitezke; ipuin bakoitzak nahi adina egile izan ditzake. Ipuin-gaiok, beraz, ez dute jaberik.

## Lehen Ipuin Gaia

Hiru pertsonaia: A, B eta C. Bakoitzak oso bizimodu desberdina darama. Hirurak ospitaleko gela berean amaitu dira, minbiziak jota.

A pertsonaiaren karakterizazioa: maitale ona, nahiko gaztea, neskekin arrakastatsua, ikasketaduna eta —minbiziz gaixotu arte— etorkizun oneko gizasemea.

B pertsonaiaren karakterizazioa: galtzaile porrokatua, droga eta parranda zalea, ikasketarik gabea eta —minbiziz gaixotu arte— etorkizun kazkarreko gizasemea.

C pertsonaiaren karakterizazioa: ameslaria eta idealista, gizarte borroken alde den-dena ematen duten horietarikoa, apur bat zurruna eta ortodoxoa berekin eta besteekin, eta —minbiziz gaixotu arte— proiektu eta itxaropen handiak zituen.

Hirurek dakite fase terminalean daudela; hau da, euren minbizia gairik izan ez eta azkeneko egunak bizitzen ari direla. Elkarrekin hitz egiten igarotzen dituzte ospitaleko ordu luzeak, batez ere gauez.

## Bigarren Ipuin Gaia

Pub batean sartu beharrean, istripuz putetxe batean sartu zen gizonaren ipuina. Hortik aurrera bitzta nola korapilatu zitzaion: nahigabe txortan bukatu zuen emagalduetariko batekin; irteterakoan, haren emaztearen ezagun batekin egin zuen topo; gaixotasun bat harrapatu eta senideei kutsatu zien; dibortzioa; bakardadea; une latzak... Azkenean, erorialdia gaingitu eta putetxe bat zabaltzen du. Eta orduz geroztik, oso pozik eta oso zoriontsu bizi izan zen.

## Hirurgarren Ipuin Gaia

Auzoko bat, izen txarrekoa auzokoan artean. Etxebizitza-erakin osoari su eman eta nola erretzen den begira dago. Leihotik laguntza eskatuz auzoko bat ikusten duen bakoitzean, harekin izandako hika-mikak datozkio gogora.

- "A" auzokideak txakur bat zeukan eta egun osoan zaunka aritzen zen etengabe, jabeak ez baitzuen inongo neurririk hartzen egoera erremediatzeko.
- "B" auzokideak egun osoa igarotzen zuen telebistaren aurrean, bolumena altu-altu jarrita. Bolumena jaisteko gizalegez egin zizkion eskaerei ez zien inoiz jaramonik egin.

- "C" auzokideak edozein tokitan aparkatzen zuen autoa, gaizki beti: espaloi gainean, etxe ondoko bihurgunean, bigarren lerroan... Ondo aparkatzeko tokia egonda ere, hark beti aparkatzen zuen gaizki. Eta ahal izanez gero, espaloi gainean beti.
- "D" auzokideak etxean egiten zuen lan tresna berezi batekin. Bost milioi pezetako autoa zeukan baina bosteuh mila pezeta ez zituen gastatu nahi izan, bere langela insonorizatzeko.
- "E" auzokideak teklatu bat erosi zion semeari. Teklatu hau aurikularrez ere jo zitekeen, baina hala ere, auzokideak ez zion arazoari irtenbide eman, konpontzen erraza izan arren.

Auzokoekin izandako iskanbilak gogoratzen dituen bitartean, ipuin honetako protagonistak eraikinari begira dirau. Eszenategia: sugarrak, kea, oihu lazgarriak, suhiltzaile eta polizieen sirenak, ambulantziak...

### Laugarren Ipuin Gaia

Soldadu batek gogora dakartza gerrako oroitzapenak. Batez ere, ekintza krudel eta koldarrak datozkio burura: proxenetismoa, arma kontrabandoa, atxilotuei emandako jipoiak eta

egindako torturak, droga trafikoa, epaiketarik gabeko fusilamenduak, bortxaketak... Gauza guztiorietaz oroitzen da, «Ausarten Urrezko Domina» paparrean jartzen dioten bitartean.

### Bosgarren Ipuin Gaia

Hiruzpalau pertsonaia, 40-45 urte ingurukoak. Klean gaztaroko lagunak batekin elkar topatzean, garai hartakoak gogoratzen dituzte halako lotsa sentimendu batez.

- a) "Superfolladora" bat. Gaztetan hiriko mutil ia guztiekin larrua jo zuena eta gaur egun 3 seme-alaben ama eta emazte zintzo-zintzoa dena (legegizon ospetsu batekin ezkondua).
- b) "Pasotilla" bat. Gaztaroan, bere astialdian "txokolatea" saltzen zuena eta gaur egun kazetari eta idazle diskretua, famili bizitzara erretiratua.
- c) Homosexual ohi bat, «deiarri» bizkar eman ziona gaztaroko egunak igaro bezain azkar. Gaur egun, kultur erakunde itzaltzu bateko zuzendaria.
- d) Sexu zale amorratu bat ("adicto al sexo"): idazlea eta literatur irakaslea, fantasia sadomasokistak gogoko dituena. Mundu

guztiak horren berri dakiena susmatzen badu ere —eta holaxe da, izan ere—, horretaz guztiz ziur ez dago (beharbada, gehiegi ere ez zaio axola).

### Seigarren Ipuin Gaia

Gizon batek bere familia abandonatzen du. Handik urte batzuetara, atzerritik itzuli eta inori ezer esan gabe etxe bat alokatzen du bere emazteohiaren etxetik hurbil. Leihotik bere familia zelatatzen du. Ipuinaren ardatza hauxe da: zer ikusten du leiho horretatik? zer pasatzen zaio burutik? Horra zenbait ideia, abiapuntu modura:

- Emazteak bizilagun berria dauka
- Seme-alabak kozkorturik daude eta badirudi zorionsuak direla
- Garai bateko lagun bat edo beste bisitan dator oraindik.
- Andreak auto berria du; etxebizitzak itxura ona du kanpotik; kamioi batek altzari berriak dakartza...
- Txakurrari berari ere lehen bezain alai nabari zaio, zahartuxeago badago ere.

Gizona ia altzaririk gabe bizi da; ez du inoren bisitarik; lan gutxi egiten du eta diruz estu dabil; barrutik hutsik sentitzen da; deserroturik dago...

Gizonak, hala ere, etxetik alde eginda ondo jokatu zuela ateratzen du ondorioz. Benetan pentsatzen du hori, ala bere burua enganiatzen ari da?

Azkenik, etxe alokatua utzi eta etorri bezala alde egiten du auzotik eta hiritik, inori ezer esan gabe.

### Zazpigarren Ipuin Gaia

Familia bat irilatxo batera iristen da, egun batzuk bertan igarotzeko pozetan. Gizonak 60 urte inguru ditu eta andreak 47. Bi seme-alaba dituzte, biak gazteak baina erabat haziak biak (20 urtekoa bata eta 24 urtekoa bestea).

Mutila drogazale porrokatua da.

Neska buruarin eta azalezkoa.

Irlara iritsi bezain laster, andreak berehala sentitzen du *zibilizazioaren* hutsunea. Gizona, ordea, gustura dago han, erosotasun handirik gabe.

Irlan etxe apal bat baino ez dago eta udan naturzaleei eta horrelako jendeari alokatzen diete. Irla osoan ez da inor bizi urteko gainerako urtaroetan. Noizean behin, txalupa motoreduna



hartu eta handik hurbileko kostara arazo handirik gabe joan daiteke, elikagai eta hornidura bila. Larrialdirik gertatuz gero, irratitxo bat ere badago.

Gizona erretxinduta bizi da; ez du gogoko bere familia jada. Elkarren arteko ezinikusiak irlako bakardadean areagotu egiten dira, oso-oso agerian geratzen diren arte. Laugarren egunerako alde egitea erabakitzen dute, gizona izan ezik. Bera hantxe bizitzen geratuko da, irlan betiko gelditzeko erabakia hartu baitu.

### Zortzigarren Ipuin Gaia

Hiri osoa izaturik zegoen, txakur beldurgarri batzuek eginiko erasoak zirela eta. Txakurrak edozein arrazatakoak ziren, normalean handi samarrak, eta hilabetean behin txakur berri baten eraso gertatzen zen puntualtasun beldurgarritz. Gero, poliziak txakurra hiltzen zuen, baina hurrengo hilabetean bazen beste txakur bat hirian aske eta hau ere erasotzeko hezia. Txakurrak erasotzeko heziak ziren; norbaitek —edo norbaitzuek— hezten zituen horretarako. Baina txakur bakoitzak biktima-mota bati erasotzen zion. Esaterako, urtarrileko txakurrak hiriko gizon-emakume itsuei eraso zien; otsaileko txakurrak kalegarbitzaileei; martxokoak edadeko pertsonei; apirilekoak etxeoandre itxurako emakumeei; maiatzekoak gizon-emakume potoloei; ekainekoak

drogazaleei; uztailekoak uniforme z jantzitakoei; abuztukoak emakume haurdunei; irailekoak haurrei; urrikoak txirrindulariei; azarokoak gorbatadun guztiei; eta abendukoak "Papa Noel", "Errege Mago" edota "Olentzero"z jantzitakoei.

Hiria zinez izaturik zegoen.

### Bederatzigarren Ipuin Gaia

Bi anai-arreba osterara ere elkartzen dira, urte luzeak elkarretaz ezer jakin gabe igaro eta gero. Kanean zihoazela suertatu dira elkarrekin, guztiz espero ez zutela alegia, atzerriko hiri handi batean (Chicago-n, esaterako). Anaiak —eta familiakoek, noski— hiltzat jotzen zuten, duela urte asko desagertua baitzen arrastorik eta mezurik utzi gabe.

Zergatik alde egin zuen horrela? Anai-arrebaren arteko azalpenak.

Neskak orain egiten duen bizimodua: beltz batekin ezkondua dago, alaba bat dauka, spanish eskolak ematen ditu, giro atsegin, atipiko batean bizi da... Hasierako bizipenak ere kontatzen dizkio: nola heldu zen Chicago-ra, zer aurkitu zuen, nola atera zen aurrera hasierako momentu haietan...

Anaiaren bizitza hitsagoa da, grisagoa...

Gurasoetariko bat hilda dagoela jakinarazten dio.

Arreba hila zegoela uste zutenez, gurasoaren ilobian haren izena ere erantsi zuten (arrebaren izena alegia) eta urtero amak meza bat eskatzen du haren omenez.

Betiko despeditu aurretik, arrebak zin eragiten dio anaiari ez duela inori ezer kontatuko, eta gauzak dauden bezala geldituko direla. Anaiak amore ematen du.

### Hamargarren Ipuin Gaia

Neska batek mutil atsegin bat ezagutzen du. Bere eraikin berean bizitzen jarri berria den mutil gaztearekin harreman xalo bati ekiten dio. Baina mutilak sekretu latza gordetzen du, serieko hiltzailea da-ta. Adineko emakumeak hiltzen ditu: gaur hiri batean, bihar bestean, etzi...

Bien arteko harremana apur bat deskribatu behar da: portalean, igogailuan, elkarrekin kafe hartzen, filmeak eta liburuak trukatzan... Azkenean, ohean ere amaitzen dira. Neska ilusionaturik dago; bere bizitzako maitasuna aurkitu duela uste du eta mundu guztiari ematen dio nobedade pozgarriaren berri: gurasoei, lagunei... Goiz batean, kalera jaitsi eta paper denda baten

aurretik igarotzean, bere senargaiaren argazkia ikusten du egunkari guztietan, eta titularra antzekoa da denetan: "Adineko emakumeak hiltzen zituen psikopata harrapatzea lortu du poliziak".

### Hamaikagarren Ipuin Gaia

Tipo bat, taxi batean bizi dena. Mutilzahar porrokatua, diru gutxikoa, anbiziorik eta loturarik gabea... Taxian jan, lo egin eta bizarra ere kentzen du, ez baitu dirurik etxebizitza bat alokatzeko. Gainera, ez zaio inporta taxian bizitzea. Mota guztietako pertsonekin hitz egiten du. Mota guztietako gertaerak ikustera ohituta dago: istripuak, lapurretak, borrokak eta liskarrak, mozkortuak, erasoak, kalean nolabaiteko krisialdia duten pertsonak, edo bat-batean negarrez hasten direnak,... Batzuetan, jendeak bere arazoak kontatzen dizkio. Bikote batzuei gutxi falta zaie larrutan taxi barruan bukatzeko (bikoteren batek egin izan du!). Taxi gidariaren bakardadea azpimarratzeko modukoa da. Gasolindegikoekin daukan harremana ere nabarmendu behar da, gizarte "normalarekin" harremanetan egoteko ia leku bakar baitira erregaitegiak (itsas gizonen eta portuen arteko harremanean bezala). Egun batean, roulotte bat erosten du. Eta butaka batean erdi etzanda, hankak luzaturik eta besoak garondoan jarrita, zera dio ozenki: "I dit it".

## Hamabigarren Ipuin Gaia

Istorio hau bizitegi batean gertatzen da, hiriko apartamentu horietariko batean alegia. Hor mutil gazte bat bizi da: bakartia, bere barnean bildua, herabea, isila... Halako batean, sabaian, itogin bat dagoela ohartzen da. Hasieran, hezetasunaren marka baino ez da. Laster, ordea, ura tantaka erortzen hasiko da. Kubo bat jartzen du azpian, lurtean. Ez da ausartzen oraindik goiko pisura igotzera. Herabea da oso. Goizean, gero eta ur gehiago erortzen dela ikusten du. Igotzen da goiko bizitegikoarekin hitz egitera, horren berri ematera, baina ez dago inor. Azpil handi bat jarri eta lanera doa. Gauez, gela ur gainezka dago; azpila gainditu eta alfonbra busti-bustita geratu da. Gora doa baina goiko pisuan oraingoan ere ez dago inor. Gaua pasatzen zaio ia lorik egin gabe, ura nola erortzen den begira. Dagoeneko ur asko erortzen da; ur jarria da. Goizean goiko pisura igotzen da baina ez dio inork irekitzen atea. Eraikineko atezaina oporretan da. Itoginari gero eta ur gehiago dario. Ur jauzi txiki bat ematen du. Gela urez gainezka dago, putzu bihurtuta. Etxe osoa urez betetzen ari da. Ate azpitik ere isuri eta eskaileran behera isurtzen da. Mutila desesperatu egiten da baina ez daki zer egin. Blokeaturik dago. Izuturik dago. Ez da ausartzen lanera joatera. Ura hormetatik isurtzen ere hasia da. Kanpoan, korridorean, auzokoak euren etxeetatik ari dira

ateratzen; ozenki hitz egiten entzuten die. Ura leku guztietara iristen da. Ate joka ari dira. Baina mutilak ez du atea irekitzeko keinurik egiten. Gelako bazter batean eserita dago, kukubilkaturik, pijama bustia soinean, potxingo batean... Belarriak eskuekin tapatzen ditu, auzokoei deika eta ate joka ez entzutearren. Ordu batuzk igarotzen dira horrela. Bat batean, goiko pisuan zaratak entzuten dira. Azkenik heldu da goiko auzokidea! Kolpeak, mailu kolpeak... Iturginak lanean... Ura erortzetik gelditzen da. Itogina konpondu dute. "Orain", pentsatzen du gazteak, "ohiko bititza hasiko da berriro". Eta ez dabil oker.

### Hamahirugarren Ipuin Gaia

Auzo batean, bospasei altuerako etxebizitza-eraikin batean gertatzen da istorio hau. Gizon bat, ezkondua, seme-alabaduna. Gizonak harreman oso onak ditu portaleko auzokoekin, baina batez ere, portaleko emakumeekin. Hark berak ez daki nola hasi den, baina portaleko emakume guztiekin maitasun kontuak ditu. Bizitza korapilatatu egiten zaio horrengatik, ez baita erraza hainbeste emakume asebetetzea. Bere emaztea ez ezik, emakume guztiak ditu engainatuta. Eta behin eta berriro, gezurrak eta aitzakiak asmatu beharrean dago, bakoitzarekin une batzuk igaro ahal izateko. Barre egiteko moduko egoerak ugariak dira:

- ? Goizean emazteari musu eman, agur esan eta beheko auzokoaren etxean sartzen da segituan. Honek ere musu batekin hartzen du etxean (eta jakina, jantzi berria den arropa erantzi behar...).
- ? Auzoko horren etxetik atera eta berriro ere bere andrearen etxera igotzen da, eguerdiko ordubiak aldean ("Kaixo, maitea"; "zer moduz lanean? oso lanpeturik ibili zara gaur?" e.a.)
- ? Beste behin, portaleko gizon batekin topo egin eta galde egiten dio: "zer moduz andrea, katarroa sendatu al zaio?". "Bai, bai". Orduan, katarroa sendatu zaionez, goiz horretan bertan joango zaio etxera, bisitan...
- ? Egun batean, goiz eta arratsaldeko ordu guztiak joan zitzaizkion etxe batetik bestera pasatuz. Bazkaltzeko baino ez zen gelditu berean egun hartan...

Gizonak —onartu beharra dago— dohain berezia zeukan emakumeekin. Behin, esaterako, ohiko postaria gaixotu eta haren ordeztan emakume postari bat joan zen posta banatzera. Gure gizonak portalean topatu eta "Barka, ezagutzen al duzu auzoko hau?" galde egin zion emakume postariari. Beno, ba, hamar minutu igarota hantxe ari ziren biak, ñaka-ñaka, portaleko txoko ilun batean, zazpi korapiloko soka baino korapilatuagoak.

Azkenik, den-dena jakingo du jendeak. Andre guztiek izango dute engainuaren berri eta gizonak iheska atera beharko du, hantxe larrutua izatea nahi ez bazuen... Auzoan ere gertatutakoaren berria zabaldu zen; eta barre handiak egin eta gero, auzokoek portal horren kalearen izena aldatzeko egin zuten eskaera ontzat eman zuen Udalak. "Pikadero kalea, 37", izen horixe eman baitzioten kaleari handik aurrera.

### Hamalugarren Ipuin Gaia

Kamioilari bat. Berrogeita hamar bat urtekoa. Bizitza osoa kamioiko kabinan eman duena. Gau itxia da. Gidatzen doa eta andreak bazkaltzeko prestatu ohi dion erbi gisatua du gogoan. Izugarri gustatzen zaio erbi haragia; batez ere, bere andreak prestatzen duen erara... Ummmm! Gozo-gozoa! Halako batean, erbi bat bat ikusten du errepidean. Aurrez zetorren kamioiaren argiek itsuturik, erbia itsu geratu da eta errepidean geldi-geldi dago. Orduan, bere kamioia geldiarazi eta erbia harrapatzera doa. Arazorik gabe harrapatzen du belarrietatik. Kamioia igotzera doan unean, beste kamioi batek haren kamioiaren aurka talka egiten du. Kolpea ikaragarria da. Kamioilaria bere kamioiaren kabinaren azpian harrapaturik gelditzen da; beste kamioilaria larriki zaurituta dago. Erbia, berriz, berriro suspertu eta badoa, saltoka, arin-arin, ondoko sastrakadian galdu arte.